


Ziryab, IX. mendeko 'influencerra'



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Mosul, 789. Abu Al-Hasan Ali ibn Nafi jaio zen abbastar kaliferriko hirian. *Ziryab* (zozo) izenez egin zen ezagun, bere azal ilunagatik eta, batez ere, ahots ederragatik, Ibn Hayyan (987-1075) historialariaren arabera. Dohain horri esker, Ishaq al-Mawsili maisuak kalifaren gortean sartu zuen, baina ikasleak maisua gainditu zuenean, jelsia eta bekaizkeria medio, dizipuluak Bagdadeko gortetik ihes egin omen zuen 822an. Beste iturri batzuen arabera, lehenago utzi zuen hiria, 813. urtean, eta Siria eta Ifrikian ibili ondoren, musikari ibiltaria Kordobara abiatu zen. Abd ar-Rahman II.a emir berriak beso zabalik hartu zuen han, batetik, omeiatarak Bagdadeko abbastarren etsai amorratuak zirelako eta, bestetik, emirrak Kordoba Europako kultura hiriburu nagusietako izatea nahi zuelako. Handik aurrera Ziryab Kordoban bertan bizi izan zen, eta hantxe hil zen 857an. Eta, hala ere, bere eragina urrutira iritsiko zen hainbat arlotan.

Kordoban bere musika dohainak garatzeko eta zabaltzeko askatasuna eta baliabideak izanda, Europako lehenengo musika kontserbatorioa sortu zuen. Bertan, ikasleek afinazioa, gorputz adierazpena, a capella kantatzen, errezeitzen, konpasa jarraitzen... ikasten zuten. Ikasgaiak ikusita, garbi dago kontserbatorioan kantua lantzen zela bereziki, baina Ziryabek musika tresnei ere ekarpenak egin zizkien. *Ud* izeneko ekialdeko lauteari bosgarren soka erantsi zion; horixe izango zen gitarra klasikoaren jatorria, oraindik beste soka bat gehitzea falta arren.



VATIKANOKO APOSTOLUEN LIBURUTEGIA

Gastronomian, lehenengo pisto errezeta berea omen zen -Ameriketatik tomateak eta piperrak ekarri baino lehen egiten zen pistoaren bertsioarena behintzat-. Baina bere platerik ezagunena, Al-Andalusen mugak gainditu zituen, *ziryaba* izan zen, esnez, haragiz eta arbendolaz egina. Kataluniako *menjar blanc*, Frantziako *blanc-manger* eta Italiako *biancomangiare* platerak hor dute jatorria. Salda eta zizka-mizketatik hasi eta azkenbururainoko plateren ohiko ordena ere bere iradoki omen zuen.

Fundamentuzko edozein *influencer*-ek bezala, janzkeran eta estetikan ere arrastoa utzi zuen. Garai hotzetan kolore ilunez eta beroetan kolore argiz janzten omen zen, eta goizerako, arratsalderako eta gauerako jantzi egokiak ere bereizten zituen. Gizonen artean ile-kopeta luzea modan jarri zuen, emakumeentzat apaindegiak zabaldu zituen eta ile-apainketa, depilazio eta kosmetika eskolak ematen zituen estetika institutu modukoa ere sortu omen zuen.

Beti ere Ibn Hayyanen arabera, hamar seme-alaba izateko astia ere izan zuen. ●

9.000 urteko garagardoa Txinan

Txinako hegoaldean, Qiaotou hiritik gertu dagoen nekropoli batean, hainbat ontzi aurkitu ondoren, Dartmouth (New Hampshire, AEB) unibertsitateko ikerlariak ontziok aztertu eta emaitzak *Plos One* aldizkarian argitaratu dituzte.

Murkoetako mikrofosilei eta ondoren arrastoei esker, duela 9.000 urte

inguru hartzitutako zerealak eta, beraz, garagardoa zutela ondorioztatu dute. Garagardoaren kontsumoa hileta erritualetan lotuta zegoela uste dute adituek.

Gainera, ontziak orain arte aurkitutako zeramika margotuzko piezarik zaharrenetakoak dira. ●



JIAJING WANG